



TESTULIBURUAK DOAN JASOTZEKO PROGRAMA

2014-2015 IKASTURTERAKO JARRAIBIDEAK

0.- SARRERA

Testuliburuak doan jasotzeko programan sartuta daude Nafarroako Foru Komunitatean diru publikoarekin ari diren ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak egiten dituzten ikasle guztiak.

Oinarrizko irakaskuntzarako testuliburua finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legearen arabera (abenduaren 30eko 256. NAO on argitaratutako 19/2011 Foru Legeak aldatu zuen), oinarrizko irakaskuntzetako ikasleek bost ikasturtez erabiltzeko modukoak izan beharko dira liburuak.

Jarraibide hauek bi eduki motatan egituratzen dira: batetik orokorrak, ikastetxe guztietarako komunak, edozein izanik ere aukeratutako kudeaketa-sistema, eta bestetik, kudeaketa-sistema bakoitzerako zehatzagoak.

Ikastetxe publiko zein itunduek EDUCA erabiliko dute datu guztiak sartzeko.

▪ Helbide elektronikoa: Gratuidad.libros.texto@navarra.es Hezkuntza Departamentuaren eta ikastetxe publikoen eta itunduen arteko komunikazioetarako erabiliko da.

1.- IKASLE HARTZAILEAK

1.1- 2014-2015 ikasturtean hartzaileak izanen dira diru publikoarekin ari diren Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan matrikulatutako ondoko ikasleak:

a) Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailatan matrikulatutako ikasleak (loteak ikasturte bakoitzean berritzen dira).



Lehen Hezkuntzako lehen zikloan ikasleek bakarka erabiltzen dituzten testuliburuak edo curriculum materialek ezaugarri jakinak dituzte eta, hartara, Doakotasun Programan modu berezitan tratatu behar dira. Irailaren 27ko 61/2010 Foru Dekretuko 2.2. artikulua aurrez ikusten du ziklo honetan ez dela testuliburuaren iraunkortasunaren baldintza eskatuko eta haiek ikasturte guztietan erosi beharko direla. Hori hala izanik ere, erabilitako materialagatik haiek berritzea nahitaezkoa ez den irakasgaietan, ikastetxeak erabaki dezake haiek berrerabiltzea hurrengo ikasturteetan Lehen Hezkuntzako gainerako mailetan bezala.

b) Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. ikasmailatan eta DBHko 4.ean matrikulaturiko ikasleak.

- 2013-2014 ikasturtean berritu zituzten ikastetxeak: gehienezko kopurua %0,5ekoa izanen da. Ordezte eskaerak 61/2010 Foru Dekretuak ezarritakoa bete beharko du eta ez da aukerarik izanen testuliburuak berritzeko.

- 2013-2014 ikasturtean liburuak ordeztu zituzten ikastetxeak: 61/2010 Foru Dekretuarekin bat, testuliburuak berritzea edo ordezte **hauta dezakete**. Kasu honetan, ordezteko gehienezko kopurua %25ekoa izanen da.

Itxiera jarraibideetan adierazi zen moduan, posta elektronikoa bidaliko da gratuidad.libros.texto@navarra.es helbidera, maila hauetarako zein aukera hautatu den adieraziz (berrerabiltzea edo liburu berriak aukeratzea), **2014ko ekainaren 4a baino lehen**.

c) Lehen Hezkuntzako 5.ean eta 6.ean eta DBHko 1.ean matrikulaturiko ikasleak

61/2010 Foru Dekretuarekin bat, testuliburuak berritzea edo ordezte **hauta dezakete**. Kasu honetan, ordezteko gehienezko kopurua %25ekoa izanen da.

Itxiera jarraibideetan adierazi zen moduan, posta elektronikoa bidaliko da gratuidad.libros.texto@navarra.es helbidera, maila hauetarako zein aukera hautatu den adieraziz (berrerabiltzea edo liburu berriak aukeratzea), **2014ko ekainaren 4a baino lehen**.



d) DBHko 2.ean eta 3.ean matrikulaturiko ikasleak (orduan hasten da maileguaren 5. urtea)

-Lote osoak matrikula igoko balitz eta ordezkatzek gainerako kasuetan. Ikasmaita horietan ezin da berri, ordezte da egin daitekeen bakarra. Gehienezko ordezte kopurua %8koa izanen da. Ordezte eskabideak 61/2010 Foru Dekretuan ezarritakoa bete beharko du.

e) Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak, hots, halakotzat diagnostikatu direnak, nahitazko hezkuntzako zeinahi ikasmaitan matrikulaturik daudela ere. Ikasle hauei dagokien hirugarren jarraibidean zehaztutakoari jarraituko zaio.

1.2.- Legezko ordezkariak uko egitea: programari uko egitea erabakitzen denean, legezko ordezkariak, ikaslea zeinahi mailatan matrikulaturik dagoela ere, "Uko egiteko agiria" bete eta ikastetxean utzi beharko dute horretarako adieraziko zaien epean.

Uko egiteko agiri hori legezko ordezkarien eskura izanen da ikastetxean eta webgunean.

1.3.- Departamentuari jakinaraztea: EDUCA aplikazioan sartuko da matrikulari eta aukeratutako testuliburuak edo materialari buruzko informazioa. Horretarako, ikastetxeak datuak 2014ko uztailaren 25a baino lehenago bete beharko dituzte.

1.4.- Emate- eta itzulketak-agiriak: testuliburuak batera, ikastetxeak, ikasleak zeinahi ikasmaitan matrikulaturik daudela ere, ikasleen legezko ordezkariak "Emate-agiri" bat ematen ahal diete (agiri horretan emandako liburuak zerrenda agertuko da). Legezko ordezkariak sinatu ondoren, ikastetxean utziko dute.

Ikasturtea bukatutakoan, ikastetxeak hala eskatzen duten ikasleen legezko ordezkariak "Itzulketak-agiria" emanen diete, sinatua. Egiazki itzulitako liburuak agertuko dira agiri horretan.

Bi agiriak EDUCA aplikazioak sortuko ditu.



2.- LOMCE-REN ETA DOAKOTASUN PROGRAMAREN ARTEKO DEFASEAREN ERAGINA TXIKIAGOTZEKO ASMOZ APLIKATU BEHAR DIREN BERRITASUNAK

2.1.- Norberak sorturiko materiala, LOMCEra egokitua

Doakotasun programak eta LOMCEk denborazkotasun desberdina dutela ikusita, komenigarri iritzi zaio ikastetxeek jada badituzten liburuekin jarraitzeari. Nolanahi ere, jakitun izanik ordezteak esan nahi duela LOMCEra egokitu gabeko liburuekin jarraitzea, ordezteko aukera sustatzeko asmoz, nahitaezkozat jo da ordezteak ez hartzea soilik hasierako testua, ez baitago LOMCEra egokitua. Testuak egokitu egin beharko dira, ikastetxe bakoitzak sortutako materialaren bidez.

Beraz, **Lehen Hezkuntzako 3. eta 5. ikasmailetan, liburuak berritzen ez dituzten ikastetxeetan, testuliburuak nork bere materialarekin LOMCEra egokitu ahal izateko, ordeztutako liburuen ehunekoari %5 gehitzea onartuko da.** Ikusirik liburuen egoera zein den eta LOMCEra egokitu beharra dagoela, ikastetxeak justifikatu eta Departamentuak baimendu ondotik, ordezteko onetsitako diru-kopuruaren zati bat materiala LOMCEra egokitzeko bideratu daiteke.

2.2- Berritze partziala

Ikastetxeek egindako proposamenak ikusirik, aukera berri bat irekitzen da: berritzeko aukera dagoen ikasmailetan (2013-2014an berritu ez zituzten Lehen Hezkuntzako 3.a eta 4.a eta DBHko 4.a eta Lehen Hezkuntzako 5.a eta 6.a eta DBHko 1.a), testuliburu berritzea bi urtetan egitea, eta ez urte bakar batean. Horrela, ikastetxe batek ikasturte honetan berritze partzial bat egin dezake, bere ustez LOMCEren aplikazioaren ondorioz aldaketarik jasoko ez duten irakasgaietan (egin kontu doakotasun programaren baitan ez dela liburu horietarako finantzaziorik izanen 5 urtetan) eta 2015-2016 ikasturtean, gainerako testuliburuak berritu.

Ikasturte honetan berrituriko liburuei dagokien zenbatekoa ordainduko da, hots, berrituriko liburu kopuruaren arabeko moduluaren alde proportzionala. Ondoko



ikasturtean gainerako liburuei dagokien zenbatekoa ordainduko da, 2014-2015 ikasturterako onetsitako moduluaren topea erdietsi arte.

Aukera honetan, lehen urtean, berritu ez diren liburuen %8ko ordezea onartuko da.

3.- DOAKOTASUN PROGRAMA KUDEATZEKO SISTEMA

Ondoko ikastetxeek:

- Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako ikasleak dituztenek.

- Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6.eko eta DBHko 1. eta 4.eko ikasleak dituztenek, liburu berriak hartzea hautatu badute.

Programa kudeatzeko bi modalitate hauetatik bat aukeratu beharko dute:

- Ikastetxeak luzatutako bonua.

- Ikastetxeak berak aukeratutako kudeaketa.

Ondoko ikastetxeek:

- Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5., eta 6.eko eta DBHko 1. eta 4.eko ikasleak dituztenek, ordezea hautatu badute.

- DBHko 2. eta 3. mailetako ikasleak dituztenek.

Ondoko modalitatea hartuko dute:

- Ikastetxeak berak aukeratutako kudeaketa.

Aukeratutako kudeaketa sistemaren gaineko informazioa klaseak bukatu baino lehenago emanen zaie ikasleen legezko ordezkariari, webgunean eskuragarri izanen den informazio gutun baten bitartez.

Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea: informazio hau EDUCA aplikaziotik hartuko da. Horretarako, ikastetxeek datuak 2014ko uztailaren 25a baino lehenago bete beharko dituzte.

4.- HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN GAINEKO ZEHAZTAPENAK

- Ikasleak: hezkuntza premia bereziak (HPB) dituzten ikasleen egoerak askotarikoak dira eta Doakotasun Programak haiei guztiei eman behar die erantzuna. Hori hala izanik, halako diagnostikoa izan eta material egokitua erabiltzen duten ikasle hauendako ikasleko dotazio bat ezarri da 2014-2015 ikasturterako, ikasle horiek nahitaezko irakaskuntzako zeinahi mailatan matrikulaturik daudela ere.

Beren ikaskideen material bera erabiltzen duten HPBak dituzten ikasleek haien tratamendu bera izanen dute Doakotasun Programaren ondorioetarako.

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan matrikulatutako HPBak dituzten ikasleek beren ikaskideen tratamendu bera izanen dute Doakotasun Programaren ondorioetarako, edozein izanik ere erabiltzen duten materiala.

- Departamentuari jakinaraztea: ikastetxe publikoek zein itunduek EDUCA aplikazioan sartuko dute informazioa. Horretarako, ikastetxeek datuak 2014ko uztailaren 25a baino lehenago bete beharko dituzte.

- Eskuratzea: material hau ikastetxeak berak erosiko du eta behar denean ikasleen eskura utziko.

5.- ERABILERA OROKORREKO CURRICULUM MATERIALAK ETA/EDO IKASTETXEAK BERAK PRESTATUTAKOAK

- Kontzeptuak: Testuliburuaren Doakotasun Programaren ondorioetarako, erabilera orokorreko curriculumeko materialtzat hartuko dira ikasleek partekaturik eta, hala dagokionean, irakasleek ere erabiltzen dituzten edozein bitarteko edo euskarrirako materialak, baldin eta testuliburuak ordezkatzeko badituzte. Zikloko edo gelako programazioan, hezkuntza proiektuan eta curriculum proiektuan ezartzen diren helburu pedagogikoak betetzea izan behar da material horien helburua.

Ikastetxeak berak prestatutako curriculum materialtzat hartuko dira irakasleek edo ikastetxeko irakasle taldeek egindakoak, baldin eta zikloko edo gelako programazioan, hezkuntza proiektuan eta curriculum proiektuan ezarritako helburu pedagogikoak beteko badira.

- Departamentuari jakinaraztea: ikastetxe publikoek zein itunduek EDUCA aplikazioan hartuko dute informazioa. Horretarako, ikastetxeek datuak 2014ko uztailaren 25a baino lehenago bete beharko dituzte.



- Eskuratzea: material hau ikastetxeak berak erosiko du eta behar denean ikasleen eskura utziko.

6.- MATRIKULA IGOERA, AUKERAKO IRAKASGAIK HAUTATZEAREN ETA GAINDITU GABEKO IRAKASGAIEN ONDORIOZKO BEHAR BERRIAK

- Kontzeptua: matrikula igoera dagoela esaten da ikastetxe bateko maila bateko ikastalde guztietako ikasle kopuruan guztira gertatzen bada igoera, ikasturte baten bukaeratik hurrengoaren hasierara.

- Ordainketa: matrikularen igoera ordainduko da Hezkuntza Departamentuak 2014ko uztailaren 25a baino lehenago dituen datuen arabera, eta programan sartu diren ikasleei dagokien ordainketarekin batera.

Baldin eta igoera hori Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen iraileko azterketak direla-eta gertatzen bada, Administrazioaren ekarpenaren %20arekin batera egingen da ordainketa ikasturte bakoitzeko abenduan.

Ikastetxe publikoetan eta itunduetan, EDUCA aplikaziotik hartuko da **matrikularen igoeraren gaineko informazioa**. Testuliburuak erosi behar badira, ikasleek aukerako irakasgaiak hautatu dituztelako edo aurreko ikasturteetan gainditu gabeko irakasgaiak dituztelako, horren berri emanen zaio Hezkuntza Departamentuari. Horretarako EDUCAn eskura izanen den "Aukerako irakasgaiak hautatzearen edo gainditu gabeko irakasgaien ondoriozko beharrak" izeneko agiria posta elektronikoz bidaliko da 2014ko azaroaren 15a baino lehenago.

7.- IKASLEEI EGOZTEN AHAL EZ ZAIZKIEN ARRAZOIENGATIK HONDATUTAKO EDO ITZULI GABEKO MATERIALAK BERRIZ EROSTEKO GASTUAK FINANTZATZEA

"2013-2014 ikasturtea ixteko jarraibideetako" C) atalaren arabera ordeztu ahal izan ez diren testuliburuak zuzenean erosiko ditu ikastetxeak eta 2014-2015 ikasturteari dagokion gerakinaren kargu finantzatuko dira, erabilera orokorreko ikasmateriala eta material informatikoa erosi baino lehenago.

Baldin eta administrazioak ikastetxe bati egiten dion ekarpena, guztira, ez bada aski aurreko paragrafoan aipatu bezala testuliburuaren ordezteko finantzatzeko, ikastetxeak



txosten bat bidaliko du Hezkuntza Departamentura, inguruabar hori kontabilitatearen aldetik justifikatuz, eta defizita finantzatzea eskatuko dio. Nolanahi ere, Administrazioaren ekarpenaren ehuneko ehun ordaindu ondoren egingen da eskaera hori.

Hezkuntza Departamentuak ikastetxeei eska diezaieke hondatutako materiala emateko; horrela, materiala aztertuko du, benetan gertatutakoa egiaztatuko eta, behar izanez gero, liburuak ordeztzeko aintzat hartu behar diren irizpideak aldatuko ditu.

8.- IKASLEAK IKASTURTEAN ZEHAR IKASTETXEAN SARTZEA

- Sartze berria: Ikasturtean zehar ikasle berriak sartzen badira ikastetxean eta, ondorioz, testuliburu berriak erosi behar badira, testuliburu horiek erosteko behar beste diru emanen zaio ikastetxeari. **Ikastetxe publikoetako zein itunduetako** informazioa EDUCAtik hartuko da.

- Ikastetxe aldaketa: ikasle bat 2014ko apirilaren 30a baino lehenago ikastetxe batetik bestera joaten bada testuliburuak entregatuko dituela begiratu da eta "Itzulketa-agiria" luzatuko da (ikastetxe publikoek zein itunduek eredia EDUCAtik ateratzen ahalko dute). Ikaslearen legezko ordezkariari emanen zaien ziurtagiri horretan destinoko ikastetxeari esanen zaio liburuak entregatu dituen eta zein den haien kontserbazio egoera.

Destinoko ikastetxeak "Itzulketa-agiria" ematea eskatuko die ikaslearen legezko ordezkariari. Ziurtagiri horrek itzulketa behar bezala egin duela esaten badu, destinoko ikastetxeak ikasle horri liburuak emanen dizkio, ikastetxeak berak dituenak edo, bestela, ikastetxeak berak erosiko dituen liburu berriak.

9.- DOTAZIO EKONOMIKOA ETA HAREN APLIKAZIOA

a) Laster foru agindu bat onetsiko da eta hartan finkatuko testuliburuaren Doakotasun Programa 2014-2015 ikasturtean finantzatzeko Administrazioak gehienez ere egingen duen ekarpena. Foru agindu hori onetsi ondoren, horren berri emanen zaie ikastetxeei.



b) Transferentzia: Hezkuntza Departamentuak ikastetxeetako funtzionamendu gastuetarako baimendutako kontuetan sartuko ditu ordaindu beharreko zenbatekoak, testuliburuak doan jasotzeko programa gauzatu ahal izateko. Zenbateko osoaren %80 urte bakoitzeko irailean ordainduko da, Hezkuntza Departamentuak 2014ko uztailaren 25a baino lehenago dituen datuen arabera, eta gainerako %20a, ikasturteko lehen hiruhilekoa bukatu baino lehenago, hala behar denean, bidezkoak diren erregularizazioak egin ondoren.

c) Aplikazioa: Administrazioak ikastetxe bati egiten dion guztizko ekarpenaren eta testuliburuaren balio errealaren guztizkoaren arteko kendura positiboa baldin bada, jarraibide hauen seigarren puntuaren arabera eta ordezte beharrak finantzaturik, gerakina erabilera orokorreko material didaktikoa eta informatikoa erosteko baliatzen ahalko da.

Baldin eta, ikasle bakoitzeko, Administrazioak onetsitako moduluaren eta testuliburuaren lote bakoitzaren kostuaren arteko kendura negatiboa bada, ikasleen legezko ordezkariak ordainduko dute kendura, eta, hala ere, ikasturte horretan testuliburu erabiltzeko eskubidea besterik ez dute bereganatuko horregatik.

10.- IKASTETXEAK LUZATUTAKO BONUAREN BIDEZKO KUDEAKETA

Kudeaketa sistema hau soilik aukeratu ahal izanen dute ondoko mailetakoa ikasleak dituzten ikastetxeek:

- Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. maila.
- Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5., eta 6. mailetakoak eta DBHko 1. eta 4. mailetakoak, testuliburu berriak aukeratu badituzte.

Gainerako kasuetan, testuliburuak soilik erosiko dira liburuak berriz erosi behar direnean edo matrikula igo denean. Bi kasuetan testuliburuak ikasleei emanen dizkiete, zein ikastetxetan dauden matrikulaturik, haiek.



- Bakarka erabiltzeko testuliburuak eta curriculum materialak hautatzea Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetarako, eta testuliburuak berritzea aukeratu bada Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailetako eta DBHko 1. eta 4. mailako ikasleendako.

Hezkuntza Departamentuak informazioa jarriko du ikastetxeen eskura argitaletxeek testuliburuak emandako datuekin. Ikastetxe publikoek zein itunduek informazio hori EDUCA aplikazioan izanen dute eta aukeraketa han zuzenean egiteko aukera izanen dute.

Departamentuak emandako datuak informatiboak dira soilik. Bi kasuetan, zerrendan sartu gabe dauden testuliburuak aukeratzen ahalko dituzte ikastetxeek. Ondorio horietarako, eta liburuak eskuratu aurretik, ikastetxeek Departamentuari jakinaraziko diote zein liburu diren eta Departamentuak argitaletxetik informazioa jasoko du eta, hala badagokio, zerrendan sartuko ditu.

Liburuak aukeratzeko unean, ikastetxeek kontuan izan beharko dute bete egin behar dituztela 37/2010, 103/2010 eta 146/2010 Foru Aginduak eta horien informazio osagarria (EDUCAn eta webgunean argitaratuta daudenak) eta, orobat, Nafarroako Gobernuak hezkuntza-etapetako hezkuntza-curriculumen garapenaren gainean oro har onetsitako araudia eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa.

2013-2014 ikasturtea bukatu baino lehenago, ikastetxeek ikasleek bakarka erabili beharreko testuliburuak eta curriculum materialen zerrenda aukeratu dute eta legezko ordezkariari emanen diete, haiek nahi duten establezimenduan erreserba ditzaten.

- Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea:

Ikastetxe publiko eta itunduak: 2014ko uztailaren 25a baino lehenago EDUCAko behar den atalean grabatuko dute bakarka erabiltzeko testuliburuak eta curriculum materialen zerrenda, eta hura kontuz berretsiko dute, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako ikasleendako eta, liburu berriak aukeratu badituzte, Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailetako eta DBHko 1. eta 4. mailetako ikasleendako.

- Bonua luzatzea:

Ikastetxe publiko eta itunduak: ikasleek bakarka erabiltzeko liburuak eta curriculum materialen zerrenda aukeratu eta EDUCAk behar den atalean grabatuko dute eta hura berretsiko dute. Programan sartutako ikasle guztiei bonua EDUCArekin bitartez luzatuko zaie, uko egin diotenei izan ezik.

Ikastetxeek bonuaren balioa egiaztatuko dute jarraibide hauetako 9. puntuan ezarritakoaren arabera.

- Kudeaketa prozedura:

Ikastetxe guztiek ikasle bakoitzeko bonu baten lau ale luzatuko dituzte:

- Ikastetxearendako alea: ikastetxeak beretako hartuko du bonua ikasleari eman zaion frogagiri moduan.
- Ikastetxeak bonuaren gainerako hiru aleak ikasleari emanen dizkio:
 - Ikaslearendako alea: liburuak hartu ondoren, ikastetxearekin itzuliko dio liburuak non erosi diren jakin ahal izateko.
 - Bi ale liburu dendarako:
 - Liburu dendarak ale bat ikastetxera igorriko du fakturarekin batera.
 - Beste alea liburu dendan geldituko da frogagiri modura.
- Ikaslearen legezko ordezkariak haiek aukeratutako saltoki baimenduetan erosiko dituzte testuliburuak eta bonuaren bi ale entregatu beharko dituzte.
 - Saltokiek ikastetxera igorriko dituzte luzatutako fakturak eta bonuaren ale bat.
 - Ikastetxeak egiaztatuko du luzatutako bonuak jasotako fakturekin bat datozela.
 - Ikastetxeak testuliburuak ikaslearen izenarekin, mailarekin eta ikastetxearekin identifikatuko ditu, ikasturtea hasi eta lehen hamar egunetan. Ikastetxe publiko eta itunduetarako, EDUCAk itsaskin bat sortuko du.

11. IKASTETXEAK BERAK AUKERATUTAKO KUDEAKETA

Soilik liburuak ordezkatu diren eta matrikula igoera dagoen mailetan.



Ondoko mailetako ikasleak dituzten ikastetxeetan:

- Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6.eko eta DBHko 1. eta 4.eko ikasleak dituztenak, ordeztea hautatu badute.

- DBHko 2. eta 3. mailak

Testuliburuak soilik erosiko dira liburuak ordeztu behar direnean edo matrikula igotzen denean eta, hartara, beti sistema honen bitartez egingen da.

- Bakarka erabiltzeko testuliburuak eta curriculum materialak hautatzea aurreko puntuko ikasleendako zein aukera hau hautatu duten Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako ikasleak dituzten ikastetxeendako.

Hezkuntza Departamentuak informazioa jarriko du ikastetxeen eskura argialetxeek testuliburuaren gainean emandako datuekin. Ikastetxe publikoek zein itunduek informazio hori EDUCA aplikazioan izanen dute eta aukeraketa han zuzenean egiteko aukera izanen dute.

Departamentuak emandako datuak informatiboak dira soilik. Bi kasuetan, zerrendan sartu gabe dauden testuliburuak aukeratzen ahalko dituzte ikastetxeek. Ondorio horietarako, eta liburuak eskuratu aurretik, ikastetxeek Departamentuari jakinaraziko diote zein liburu diren eta Departamentuak argialetxetik informazioa jasoko du eta, hala badagokio, zerrendan sartuko ditu.

Liburuak hautatzeko orduan, ikastetxeek kontuan izan beharko betetzen ari direla ondoko foru aginduak: Liburuak aukeratzeko unean, ikastetxeek kontuan izan beharko dute bete egin behar dituztela 37/2010, 103/2010 eta 146/2010 Foru Aginduak eta horien informazio osagarria (EDUCAn eta webgunean argitaratuta daudenak) eta, orobat, Nafarroako Gobernuak hezkuntza-etapetako hezkuntza-curriculumen garapenaren gainean oro har onetsitako araudia eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa.

- Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea:

Ikastetxe publiko eta itunduak: 2014ko uztailaren 25a baino lehenago EDUCAko behar den atalean grabatuko dute Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetarako



ikasleek bakarka erabiltzeko testuliburuak eta curriculum materialak eta gainerako mailetarako esleitutako testuliburuak zerrenda, eta hura kontuz berretsiko dute.

-Kudeaketa prozedura:

Ikastetxeek testuliburuak erosiko dituzte berek ezarritako moduan eta fakturazioaren aldetik gutxienezko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Fakturretan eskatutako betebeharrak jasotzeko beharko dira eta ikastetxearen izenean eginen dira.

- Fakturretan Doakotasun Programan sartutako testuliburuengatik ordaindutakoaren benetako salneurria agertuko da (eta ez beste kontzeptuengatik). Kontzeptu hori garrantzitsua izanen da kontuak onesteko ziurtagiriaren amaierako saldoa kalkulatzeko. Nafarroako Gobernuaren ekarpena gainditzen duen zenbatekoa legezko ordezkariak beren gain hartu beharko dute. Beraz, ziurtagiri horretan ezin izanen da saldo negatiborik agertu.

- Fakturak ikastetxeetan aurkeztuko dira urte bakoitzeko urriaren 30a baino lehenago.

Ikastetxeak testuliburuak ikaslearen izenarekin, mailarekin eta ikastetxearekin identifikatuko ditu, ikasturtea hasi eta lehen hamar egunetan. Ikastetxe publikoetan, EDUCAk itsaskin bat sortuko du horretarako.

12.- IKASTETXE OSATUGABEAK

Ikastetxe osatugabetzat hartuko dira irakasten dituzten etapetako maila bakoitzeko unitate bat gutxienez ez dutenak.

Ikastetxe horien egoera bereziak kontuan hartzeko, testuliburuak, erabilera orokorreko materialak eta/edo ikastetxeak berak prestatutako materialak erosi behar badira, *ez matrikula igoeragatik lote osoak eskuratzeko beharra dagoelako (datu hau EDUCAtik hartzen da)* baizik eta ikasle guztiendako edo batzuetan liburu solteak erosi beharra dagoelako (irakasgai guztietan edo batzuetan maila desberdinetako ikasleak taldekatu behar direnean), Hezkuntza Departamentuari horren berri eman beharko diote, "Erosketa beharrak maila bat baino gehiagoko unitateak dituzten ikastetxeetan" izeneko agiria betez. Agiri hori EDUCAn egonen da eskuragarri ikastetxe

publikoendako eta itunduendako. Aipatutako agiria Hezkuntza Departamentura igorri beharko da posta elektronikoz (gratuidad.libros.texto@navarra.es) 2014ko azaroaren 15a baino lehenago.